AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3138

685/2012 EBAZPENA, ekainaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Elena Baylin Zaldua andrea izendatzen da Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen postua betetzeko, eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzen.

Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko deialdia ikusita, Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 15eko 208/2012 Ebazpen bidez 2012ko apirilaren 26ko 82. zenbakian EHAAn argitaratua.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitae-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Elena Baylin Zaldua andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Kontuan izanik Elena Baylin Zaldua andrea, Osakidetzako langile finkoa, Donostia Ospitalean KSUko Fakultatibo Espezialista Medikuaren lanpostu funtzionaleko 733 plazaren titularra dena, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko izendatua izan dela.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Kontuan harturik, Gipuzkoako Osasun Barrutian Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua sortzen duen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren Seigarren artikuluan xedatutakoa.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Elena Baylin Zaldua andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerente izendatzea.

Bigarrena.– Hiru urtetarako den izendapen honek interesatuari jakinarazten zaion momentutik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Denboraldi hori igarotakoan, zuzendariak egindako kudeaketari buruz aldeko ebaluazioak badaude, beste hainbat urtez luzatu daiteke lanpostu horretan segitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez.

Hirugarrena.– Elena Baylin Zaldua andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzea, izendatzen duten egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.